



4.4. Eraikinak garbitzeko zerbitzua

1. Alderdi orokorrak

1.1. Zer hartzen du barne

Garbiketa zerbitzuak honako hauek biltzen ditu: ohiko garbiketa ekintzak edo garbiketa ekintza bereziak, eraikinean sortutako hondakinak biltzea, eta garbiketa zein higiene produktuak eta materialak hornitzea.

Eraikin publikoak garbitzeak administrazioko bulegoen eraikinak ez ezik, kudeaketa publikoko beste eraikin batzuk ere biltzen ditu; hala nola, ikastetxeak, haurtzaindegia, ospitaleak, tailerak, etab. Atal honetan bulegoen eraikinak garbitzeko erabiltzen diren irizpideak izango ditugu hizpide, ingurumen zehaztasun asko eraikin mota guztien kasuan erabili ahal badira ere.

Nahiz eta zerbitzua kontratatzeko prozedura eta elementuak administrazio bakoitzean aldatzen diren, atal honetan garbiketa kontratuetan erabili ohi diren produktuen ingurumen jorkabidearekin lotutako aspektuak azalduko dira. Hortaz, produktu horiek ingurumenean duten eragina gutxitzeko irizpideak emango dira. Era berean, zerbitzuak, oro har, ingurumena gehiago errespetatzeko zer ekintza egin behar diren ere definituko du.

1.2. Non gaude

Oro har, eraikinak garbitzeak osasunerako arriskutsuak diren mikroorganismoak ugaltzea galarazten du. Edonola ere, eta nahiz eta kontraesana dirudien, arazo larriak ere sor ditzake:

- Lan osasuneko arazoak; zuzenean garbitzaileen kasuan eta zeharka eraikineko langileengan, osasunerako arriskutsuak diren produktu toxikoak gaizki erabiltzeagatik edo luzaroan produktuak dauden gune berean egoteagatik.
- Ingurumenerako arazoak; batez ere ingurune urtarrerako, ureko organismoentzat arriskutsuak eta kaltegarriak diren substantziak erabiltzeagatik.
- Organismo patogenoek desinfektatzaileen aurrean erresistentzia hartzea; haien erabilpena mugatzen ez bada edo ez badira ondo erabiltzen.

Orain urte gutxira arte, garbiketa zerbitzua langileek beraiek egiten zuten, hornitzaileen kontratuen bidez lortutako garbiketa eta higiene produktuekin. Denborak aurrera egin ahala, garbiketa zerbitzua enpresa pribatuen eskuetan uzteko joera nagusitu da. Enpresa pribatu horiek garbiketarako kontratatutako langileak beste kontrata bati esleitu behar dizkio nahitaez, eta, kasuaren arabera, makinaz eta garbiketa eta/edo higiene produktuz hornitu beharko dituzte.



Hornikuntza eta zerbitzu kontratuen alorrean (energia eta telefonoa kanpoan utzita), garbiketa zerbitzuak kontratatzea da aurrekontuan indar handiena duen alorretako bat (urtero aurrekontuaren % 60 inguru).

Hala ere, zenbateko osoaren % 90 eta % 95 inguru langileen kostuari dagokio. Aurrekontuaren gainontzeko % 5-10a zerbitzuan erabilitako garbiketa edo/eta higiene produktuak erosteari dagokio. Hortaz, ingurumenerako hobeak diren produktuak erosteak ez luke zerbitzuaren kostuan aldaketa handirik eragingo, produktu horiek garestiagoak izanik ere (edonola ere, ez da beti hala izaten). Zerbitzuan ingurumen irizpideak sartuta ere kostuak gutxitu daitezke; izan ere, garbiketa jarduera eta ohiturak aldatzeak produktu gutxiago behar izatea ekar baitezake.

1.3. Nola jokatu

Garbiketarako kontratua eta hornikuntzarako kontratua (esaterako, aurreko ataletan azaldu-takoa, papera, ekipamendu informatikoak, eta beste batzuen ingurukoak) ezberdinak dira; garbiketarako kontratua ez da erosketara hutsa, zerbitzu bat ere bada. Hortaz, ingurumen irizpideak ez dira produktuen ingurumen ezaugarrietan soilik oinarrituko; baldintza tekniko askok kontratuaren erabilpen eta betearazte moduari egingo diote erreferentzia.

Garbiketaren arloan ingurumenaren ideia txertatzeko, eta modu horretan ingurumenaren eragina eta garbiketa langileen eta eraikinean dauden pertsonen osasunean duen eragina gutxitzeko, hurrengo neurriak hartuko dira:

- Garbiketa *ekintzak eta maiztasuna* beharizan errealetera ondo egokitzea.
- Erabilitako *produktu kimikoen* karga toxikoa gutxitzea osagai kaltegarriak dituzten produktuak saihestua, horien erabilpena mugatuta edo toxikotasun txikiagoa duten produktuak hautatuta.
- Ingurumena eta lan osasuna gehiago errespetatzen duten produktuak eta *makinak* erabiltzea.
- Langileei *formazio jarraitua* ematea; garbiketa produktuak, makinak eta prozedurak behar bezala manipulatzeko, dosifikatzeko eta erabiltzeko.
- Zerbitzua martxan dagoen bitartean *hondakin* gutxiago sortzea eta hondakin horiek egoki kudeatzea, eraikinean dagoen gaikako bilketako banaketa errespetatuz.

Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak erabiltzea zerbitzuaren kostuan erraz identifika daitekeen faktorea da. Hala ere, beste neurri operazionalago batzuk zenbatzea zailagoa da; dosifikazio egokia edo produktuen ugaritasuna gutxitzea, adibidez. Horregatik, ingurumenaren irizpideez gain, zerbitzu honetan oso garrantzitsua da *kontratuaren jarraipen eta kontrol* egokia egitea.

2. Jardunbide egokiak

2.1. Nola gutxitu kontsumoa

Garbiketa zerbitzuetarako, beharrezkoak dira: garbiketa tresna ugari (adibidez, eskuilak, kuboak, lanbasak, eskutrapuak, mopak...); makina elektrikoak edota konbustio makinak (xurgagailuak, leuntzeko makinak, urez garbitzeko makina automatikoak...); lanerako uniformeak (betaurrekoak, eskularruak, oinetako bereziak...); eta garbiketa produktu ugari (moketak garbitzeko produktuak, koipea kentzeko produktuak, ambientadoreak, etab.).

Garbiketa lanetan, bai zerbitzuko langileen ustean, bai eraikin publikoetako erabiltzaileen ustean, distira eta lurrin usain arina garbiketarekin lotu da, eta bi ezaugarri horiek ez dute zertan garbitasun egokiarekin zuzenean harremana izan behar. Distirak eta lurrinak higiene eskasa ezkutatu egin dezakete, eta garbi sentazioa areagotu. Gainera, horrek beharrezkoa dena baino produktu kimiko gehiago erabiltzea ekarriko luke. Komunerako pastillak edo usaina kentzeko likidoak dira ohiko adibideak, baita ambientadoreak ere.

Beste uste oker bat honako hau da: gero eta produktu gehiago erabili, orduan eta garbiagoa egongo dela.

Garbitasunaren inguruko kontzeptu horiek ez dute ingurumena zaintzen, eta, batzuetan, baliabide naturalak zentzuz erabiltzearen printzipioen kontrakoak dira.

Hortaz, ingurumena gehiago errespetatuko duen garbiketa zerbitzua garatzeko, kontsumoa gutxitzeko neurriak sortu behar dira. Honela, esate baterako:

- Erabiltzen diren *produktu kimikoen ugaritasuna gutxitzea*, garbitasunean zuzenean laguntzen ez duten produktuen substantziak edo osagaiak ezabatuta (koloratzaileak, lurrinak, desinfektatzeko ez diren produktuetako desinfektanteak...).
- Garbiketa produktuen *dosifikazio egokia*, beharrezkoa den kantitatea neurtzeko dosifikazio sistema zehatzekin.

Modu berean, produktu gutxiago kontsumitzeko lan metodo modernoak ere aplika daitezke. Jarduera onartuena eta hedatuena hauxe da: erratzak, erraztatze makina automatikoak, xurgagailu edo hautsaren kontrako trapuen ordez *mikrofibrazko* mopak eta baietak erabiltzea.

Mikrofibra ehun teknologiarri esker, tresnek, iman gisa, hauts partikulak xurgatzeko gaitasun handia izaten dute. Hala, gainazalak eta lurzoruak produktu kimikoak erabili gabe garbitzeko aukera izaten da, eta, gainera, tresna gutxiago behar izaten da (lanbasak, erratzak, kuboak).

Sistema horri esker, lan ordu gutxiago eta produktu kimiko gutxiago behar izaten dira, eta, gainera, substantzia arriskutsuak dituzten ur gutxiago isurtzen da. Gainera, berriz erabili daitezke, garbitzearekin nahikoa baita.

Azkenik, eta agian ekintza bistakoena bada ere, kontsumoa gutxitzeko garbiketa lanen *maiztasuna beharrezko errealitate egokitzea* beharrezkoa izango da, eta estetika arloari daukana baino garrantzia handiagoa ez zaio eman behar. Adibidez, lurzoruak arrazoi estetikoengatik leuntzen dira (ez garbitasunagatik), baina horretarako langileentzat zein eraikineko erabiltzaileentzat oso arriskutsuak gerta daitezkeen produktuak erabiltzen dira. Kasu horietan, kaletik sar daitezkeen zikintasuna ekiditeko eta gehien higitzen diren guneak babesteko prebentzio neurriak erabili beharko lirateke.

Hala era guztiz ere, neurri horiek guztiek funtzionatzeko, eta guztiek ondo hartu eta aplika ditzaten, beharrezkoa da eraikinetako langile eta erabiltzaile guztien *komunikazioa eta sentibilizazioa*, kontzeptu kultural horiek apurtzeko.



2.2. Nola jakin benetako beharrak: adierazleak

Garbiketaren *beharrizan errealak* ezagutzeko eta mota honetako zerbitzuak lizitzatzeko egiteko edo langileen beraiek egin ahal izateko, komenigarria da garbiketa errearen plana ezartzea.

Hasteko, «garbiketa» terminoa eta garbiketaren estandarrek edota mailak definitu behar dira. Izan ere, garbitasuna kultura eta ohitura subjektibotasun handiko kontzeptua da.

Ondoren, gunearen mapa bat lortu behar da eta garbitu beharreko azalera mota ezberdinak (parketa, terrazoa, moketa...) ahal bezainbeste zehaztu beharko dira, baita azalera bertikalak (beirateak, apalategiak, etab.) eta bakoitzaren metro karratuak (m²) ere.

Gainera, azalera bakoitzean erabiliko den produktu mota, tresnak, makinak eta horien dosifikazioa zehaztu behar dira.

Lan plangintza osatzeko, beharrezkoa da gune bakoitzean nahi den garbiketa maila, maila bakoitzerako beharrezkoa den denbora eta garbiketa maiztasuna definitzea. Horretarako, hurrengo galderari erantzun behar zaie:

- *Ze garbiketa maila definitu nahi ditugu?* (Adibidez 1. maila: batere zikinkeriarik ez; 2. maila: itxuraz zikinkeriarik ez; 3. maila: zikinkeria pilaketa handirik ez).
- *Zer garbiketa maila aplikatuko dugu gune bakoitzean?* Gune edo espazio guztiek ez dituzte garbiketa estandar berak behar. Espazioen erabiltzaileen beharrizanen arabera, garbiketa mailak definitu beharko dira; izan ere, ez da gauza bera bulegoak, komunak, lantegiak edota artxibategiak erabiltzea.
- *Zenbatero garbitu behar da (garbiketa maila kontuan izanda)?* Galdera honen erantzuna erabileraren araberakoa izango da. Horregatik, etengabeko igarobideak diren guneak egunero garbitzea komeniko da, eta beste gune batzuk, aldiz, txandakako egunetan edota astean behin garbitzea aski da.

Informazio horrekin, beharrizan errealetara egokitutako lan plangintza diseinatuko da; hala, langileen beharrizanen, produktuen kontsumoaren eta makinaren jarraipen zehatza egin ahal izango da.

Hori guztia kontratazio pleguan zehaztuko da, lizitatzailerek eskaintzak modu egokitan aurkeztu ahal izateko. Zehaztasun horiek lizitatzailerek beraiek ere askotan eskatzen dituzte; izan ere, hartara, lizitatzailen eta administrazioko arduradunaren lana ere erraztu egiten baita.

Jarraipenaren adierazleak hiru alderdiri egiten diete erreferentzia: produktuen kontsumoari, gaikako bilketa sistemari eta garbiketa zerbitzuaren kalitateari.

Produktuen kontsumoari dagokionez, honako hau kalkulatzeko proposatzen da:

- Komuneko paper metroak langileko eta urteko.
- Garbiketa produktu bakoitzaren litro kopurua gainazalaren metro koadroko eta urteko

Gaikako bilketari dagokionez, enpresa bera bilketa sistema hobetzeaz arduratzen bada, hurrengo datu hauek ezagutzea komeni da:

- Edukiontzia kopurua metro koadroko eta solairuko.
- Langileen kopurua frakzio bakoitzeko edukiontziko.
- Edukiontzia bakoitzaren erabilpen maila: betetze maila bolumenaren ehunekotan adierazita (edukiontzia bolumena aipatuz).
- Frakzio bakoitzeko hondakin kopurua, hileko edota urteko.

Garbiketa *zerbitzuaren kalitatea* kontrolatzeko, aldian-aldian egiten diren kontrolez gain, eraikineko erabiltzaileei satisfazio inkesta bat ere egiten zaie.

2.3. Zer kontratatu behar dut, eta nola

Lehenago aipatu bezala, garbiketa zerbitzua kontratatzeke desberdintasunak izaten dira administrazio batetik bestera, zerbitzuaren edukiari eta erabilitako baliabide teknikoei eta giza baliabideei dagokienez.

Oro har, pleguek honako gai hauekin lotura duten alorrak lantzen dituzte:

- Langileak.
- Garbiketa lanak eta maiztasuna.
- Erabili beharreko materialak eta makinak.
- Administrazioak enpresarekin duen harremana.

Langileei dagokienez, enpresaren langile propioak ez ezik langile subrogatuak ere hartzen dira kontuan; izan ere, langile subrogatuen eredu asko erabiltzen da sektore honetan. Azken kasu horretan, administrazioak enpresa lizitatzzaileei subrogatu nahi diren langileen zerrenda eta horien datuak (posizioa, antzintasuna, etab.) eman behar dizkie, aurrekontuak egokitu ahal izateko. Aspektu hori funtsezkoa da enpresentzat¹ eta administrazioak horren jakitun izan behar du. Horrez gain, informazio hori eskura izan behar du eskatutakoan eman ahal izateko.

Garbiketa lanen arloan, enpresa lizitatzzaileak garbiketa lanak eta maiztasuna xehatzen dituen egutegia aurkeztu ohi du. Kasu honetan, administrazioak zerrenda hori erreparasatu egin beharko luke, eta aipatutako maiztasunak beharrezkoak ote diren aztertu. Garbitasunaren eta higienearen ikuspuntutik, hobea da sakon garbitzea gutxiagotan, sarri eta azaletik garbitzea baino. Berrikuspina arlo horretako aholkulari batek edota garbiketarako kontratatutako enpresak berak egin dezake.

Erabili beharko diren materialak, produktuak eta makinak ez dira pleguan aipatzen, enpresen eskuetan uzten dira. Hala ere, zerbitzu ekologikoagoa lortu nahi bada, beharrezkoa da garbiketa produktuen inguruko baldintza zehatzak atal honetan azaltzea, baita enpresak erabiliko duen motordun makinaren ingurukoak ere. Horien ingurumen ezaugarriak aztertzea da helburua. Arrisku eta/edo toxikotasun gutxiago, bilgarri eta kontsumo gutxiago eta zarata maila baxuagoa dutenei lehentasuna emango zaie.

13. KASUA: Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiak garbiketa zerbitzua kontratatzeke pleguan honako hau zehazten du:

- Zerbitzuan erabili beharreko produktu nagusiak eta horien dosifikazioa.
- Eraikin foral bakoitzeko garbiketa lanen maiztasuna.
- Eraikin bakoitzerako behar diren gutxieneko makinak.

¹ Sektoreko enpresekin antolatutako elkarrizketa foroan askotan errepikatutako ekarpena da hori.



2.4. Nola kudeatu hondakinak

Garbiketa kontratuko hondakinen kudeaketak honako hau biltzen du:

- Eraikineko erabiltzaileek bildutako hondakinak (banaketa eginez edo ez).
- Garbiketa zerbitzuak berak sortutako hondakinak.

Lehenengoei dagokienez, garbiketa zerbitzuko langileek udalaren eraikinetan bereizita bildutako frakzioak mantentzea eta modu egokian isurtzea bermatu beharko du. Hiri hondakinekin nahas daitezkeen hondakinak (hau da, papera eta kartoia, plastikozko edo metalezko ontziak, beira, eta, inon bada, materia organikoa) hiriko gaikako bilketako edukiontzietan jarriko dira. Beste hondakin bereziak (pilak, tonerrak, CDak, hodi eta lanpara fluoreszenteak, pintura, disolbatzaile eta antzeko mantentze produktuen hondarrak, etab.) hiri hondakinekin nahas daitezken hondakinetatik bereizita jaso beharko dira, eta kudeatzaile baimenduek tratatuko dituzte. Mota horretako hondakinak biltzea eta kudeatzea garbiketa kontratutik at modu zehatzean ezar daiteke; edonola ere, kontratuan sartu nahi izanez gero, argi eta garbi zehaztu beharko da.

Zerbitzuak berak sortutako hondakinen kasuan, langileek eraikinean dauden hondakinen banaketa bera egin beharko dute, eta hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduen eskuetan utziko dituzte (batez ere garbiketa produktu toxikoen botila hutsak, alde batera utzi ez diren spray potoak, etab.).



3. Kontuan hartu beharreko ingurumen eta teknika alderdiak

3.1. Garbitasunerako produktuak

Gaur egun garbitzeko eta desinfektatzeko lanetan erabiltzen diren substantzia gehienak arriskuak dira.

Substantzia horiek langileen osasunarentzat kaltegarriak diren osagaiak izan ditzakete; besteak beste substantzia toxikoekin eta abarrekin kontaktua izateagatik edota substantzia horiek arnasteagatik. Hala, hainbat gaitz eragin ditzakete; konparazio batera, ekzemak, konjuntibitis kronikoa, sistema immunologikoko, nerbio sistemako edo ugalketa sistemako gaitz larriak edota minbizia.

Ingurumenari dagokionez, kalterik handiena uretan eragiten dute substantzia horiek, uretara isuri ostean bioaniztasunari eta ureko faunari kalte larria eragiten baitiete. Toxikotasun eta bioakumulazio potentzial altua duten ohiko osagaiak surfaktanteak, perfumeak, koloratzailak edo biozidak dira.

Arrisku motaren arabera, substantziak eta produktuak sinboloen bidez identifikatu behar dira. Garbiketa produktuetan ohikoenak honako hauek dira:

ARRISKU MOTA	PIKTOGRAMA	ARRISKU MOTA	PIKTOGRAMA
NARRITAGARRIA EDO KALTEGARRIA		TOXIKOA EDO OSO TOXIKOA	
KORROSIBOA		SUKOIA	
INGURUMENARENTZAT ARRISKUTSUA		LEHERGARRIA	

Arrisku hauek gutxitzeko beharrezkoa da: lehendabizi, *erabiltzen den produktu kopurua gutxitzea*; bigarrenaz, arrisku gutxiago duten produktu alternatiboak erabiltzea ohiko garbiketa produktuen orde; eta, azkenik, baina ez horregatik garrantzi txikiagokoa, garbiketa lanetarako jardunbide egokiak ezartzea.

Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktu gisa izendatzeko, produktuen ezaugarriek eta osaketak I. motako *ekoetiketako* batean definitutako baldintzak bete beharko dituzte. (Ikus kapitulu honetako «Ingurumen ziurtagiriak» atala.) Honako gai hauek lantzen dira bertan:

- Osagai toxiko zehatz batzuk alde batera uztea.
- Toxikotasun baxua.
- Biodegradagarritasun altua.
- Gutxienez gama bereko produktu arrunten eraginkortasun bera izatea.

Erabilpen baldintzengatik produktuei ezin bazaie ekoetiketa eman, osaketan ingurumen irizpidea kontuan izan duten produktuak erostea sustatuko da (produktuen ingurumen berrikuntza



prozesuak edo ekodiseinua). Hartara, produktua arriskutsua bada ere, beste ohiko produktu bat baino eragin txikiagoa izango duela bermatzen da.

3.2. Higiene produktuak

Higiene produktuen barnean, hurrengo hauek biltzen dira: eskuetako xaboia, komuneko papera, eta eskuak lehortzeko ekipoa.

Xaboiari dagokionez, produktu kimikoen osagaiek batez ere uretan duten inpaktuari buruz lehenago azaldutakoa kontuan izanda, xaboia hautatzerakoan beharrezkoak ez diren substantziarik ez izatea eskatuko da (perfumeak, lurrinak, koloratzaileak, desinfektatzaileak edo biozidak, esaterako).

Komuneko papera, bestalde, erabilpen bakarreko produktua da definizioz; hau da, ezin da birziklatu. Zura baliabide berriztagarria da, baina hamarkada batzuk behar ditu horretarako. Erabili gabeko zurarekin birziklatu ezin daitekeen produktu bat sortzea, baliabide hori alferrik galtzea da; behin baino ez delako erabiliko. Beste erabilpen batzuetarako erabiltzeak, ordea, hainbat aldiz birziklatzeko aukera emango luke.

Horrez gain, kontuan izan behar da paper birziklatua sortzeak ur eta energia gutxiago eskatzen duela paper ez birziklatua sortzeak baino. Gainera, beste edozein modutan zaborteigira isuri edo erre egingo zen hondakin frakzio bat birziklatzeko aukera ematen du. Hortaz, komuneko paper birziklatua erosi beharko da.

Bestalde, prozesu batzuek (batez ere produktua zuritzeko edota kolorea edo usaina ematekoak) ingurumenari kalte egiten diote, produktua inola ere hobetu gabe. Horregatik, alde batera utzi behar dira ezaugarriak horiek.

Eskuak lehortzeko ekipoei dagokienez, hiru aukera daude merkatuan: airea, papera edota oihala erabiltzea. Ingurumenaren ikuspuntutik, ekipo ezberdinen bizitza ziklo osoa aztertuz (sortzen denetik, erabili bitartean kontsumitzen dituen baliabideak eta elektrizitatea eta bota arte), ingurumena gehien errespetatzen dutenak eskuak lehortzeko oihal bobinak dira; ondoren paperezkoak, zuntz birziklatuzko eskuoihalez berriz kargatu behar direnak; eta, azkenik, airezkoak. Azken horiek automatikoak izan behar dute; hau da, presentzia-detektagailu bidez funtzionatzen dutenak².

Hortaz, eraikinean aire arruntezko sistemak badaude, garbiketa zerbitzuaren pleguan horien ordez oihalezko sistemak edo paperezkoak erabiltzea proposa daiteke, edo, gutxienez, airea erabiltzen dutenak modu automatikoan piztea.

Paperezko ekipoak baldin badaude edo instalatzen badira, paper birziklatua erostea da aukera onena. Gauza bera komuneko paperaren kasuan ere.

3.3. Hondakinentzako poltsak

Zabor poltsak edukiontzi horietan sartu behar dira, ondoren birziklatzeko. Hala ere, poltsa asko ez dira hara heltzen, beste hondakin batzuk biltzeko erabiltzen baitira (papera, beira, zarama) eta, azkenean, zaborteigietan edo erraustegietan bukatzen dute. Hortaz, gehienak ez direnez birziklatuko, plastiko halogenorik ez duten poltsak edota birziklatutako materialez egindakoak erostea gomendatzen da.

² *Eskuak lehortzeko sistemen bizitza zikloaren azterketa* (Öko-Institut, 2006) eta *Umweltfreundliche Beschaffung* 4. Auflage, (Umweltbundesamt, 1999).

Gainera, administrazioko langileek hondakinak bereizita errazago botatzeko asmoz eta ondoren garbitzaileak ez nahasteko, hondakin mota bakoitzerako kolore ezberdinetako poltsak jartzea gomendatzen da, beste era batera bermatu ezin den guztietan. Ahal den neurrian hiri edukiontzien kolore kodifikazioa jarraituko da:

- Urdina paperarentzat eta kartoiarentzat.
- Horia plastikozko eta metalezko ontzientzat.
- Beltza soberakinentzat.

3.4. Makinak eta garbiketarako beste tresna batzuk

Lehenago aipatutako mikrofibrazko produktuez gain, beste tresna eta makina batzuk ere erabili ahal izango dira. Erabilpen profesionalerako makinaren kasuan ingurumen agiririk ez dagoenez, arlo honetako irizpideak konparazioz definituko dira. Hau da, erosi nahi diren edo beharrezkoak diren ekipoek zarata gutxiago ateratzea baloratuko da, bai eta ura zein energia kontsumo (elektrikoa zein erregai bidezkoa) txikiagoa izatea ere.

3.5. Zerbitzua burutzearekin lotutako beste ingurumen alderdi batzuk

Lehenago aipatu bezala, garbiketa zerbitzua ekologikoagoa bihurtzeko ez da nahikoa ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak erabiltzea, baizik eta garbiketa metodo berriak ere erabili beharko dira. Era berean, langileak trebatu ere egin beharko dira produktuak bereizita biltzearen eta garbiketa ohituren inguruan.

Gaikako bilketari dagokionez, frakzio ezberdinetan bildutakoa egoki kudeatzen dela bermatzeko, pleguan argi eta garbi definituko dira:

- hondakinen kudeaketaren inguruko ekintza zehatzak,
- bereizita tratatutako frakzioak, baita haien ibilbidea eta azken helmuga ere,
- frakzio bakoitzaren bilketaren maiztasuna eta ordutegia, eta
- esleipendunak jartzen baldin baditu edukiontziak, edukiontzien kopurua, solairuko edo langile kopuruko.

Lan arloko langileen trebakuntzari dagokionez, esleipendunak bere langile guztiak zuzenean trebatu beharko ditu, berdin da langile horiek propioak zein subrogatuak izan. Trebakuntzak hainbat alderi hartuko ditu aintzat; hala nola, laneko segurtasuna, ergonomia, garbiketa produktuekin harremanetan izatea (haien toxikotasuna eta arriskua dela-eta) eta kontratuko atal zehatzak. Honako hauek bilduko du:

- Ingurumen irizpidedun zerbitzuen helburu eta printzipio berriei buruzko informazioa.
- Erabili beharreko produktuak, eta, ingurumenari eragiten dioten kalteagatik, administrazioak kontratu bidez alde batera uztea edo gutxiago erabiltzea erabakitako produktuak³.
- Garbiketa metodoak eta dosifikazioa.
- Makinak eta lanerako ekipoak.
- Hondakinak kudeatzeko ekintzak.

Enpresa esleipendunak langileek arlo bakoitzean egindako ikastaroen erregistroa egin beharko du. Era berean, ikastaroen programa, data eta iraupena zehaztu beharko ditu, kontratatzen duen administrazioari urtero emateko.

³ Argi eta garbi zehaztu behar da langileek nahitaez enpresak emandako produktuak bakarrik erabil ditzaketela.



Esleipendunak *protokolo eta prozedura* zehatz batzuk ere garatuko ditu, garbiketa lanetarako, produktu kimikoak eta makinak hobeto erabiltzeko, komunikazio mekanismoetarako eta jarraipen ekintzetarako, informazioa errazago helarazteko eta kontratua betetzen ari dela hobeto kontrolatzeko. Prozedura horiek zerbitzua burutzen den eraikinean lan egiten duten garbitzaileen eskura egon behar dute.

Azkenik, garrantzitsua da kontratazio pleguan esleipendunak sei hilero edo urtean behin administrazioari emango dion *jarraipen txostena* aipatzea. Bertan, honako hauek agertuko dira (pleguan zehaztutakoaren arabera):

- Zerbitzuan erabilitako garbiketa produktuak.
- Horietako bakoitzetik eta beste garbiketa tresna batzuetatik erabilitako kantitatea.
- Erabilitako higiene produktuen kantitatea (xaboia, komuneko papera eta eskuak lehortzeko papera).
- Kudeatzaile baimenduen bidez tratatutako hondakin berezien bolumena.
- Trebakuntza planak ezartzea.
- Kontratua betetzean gertatutako edozein gorabehera.

Horri guztiari esker, administrazioak zerbitzua errazago kontrolatuko du, ingurumen adierazleak kalkulatu ahal izango ditu eta ingurumena hobetzeko beste hainbat neurri ezarriko ditu.

3.6. Kaudimen tekniko eta profesionala

Zerbitzu honek ingurumenean eta giza osasunean duen garrantziagatik, enpresa lizitatzailerei ingurumen eta lan berme handienekin lan egiteko eska dakieke, eta beren kaudimen tekniko eta profesionala erakutsi beharko dute. Hori dela eta, arlo batzuetan langileei zuzendutako trebakuntza egotea eta ingurumena kudeatzeko sistemak izatea exiji daiteke, baita zerbitzua ingurumenari dagokionez modu arduratsuan garatzeko prozedurak izatea ere.

14. KASUA: Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiak garbiketa zerbitzua kontratatzeko pleguan ezartzen du enpresa esleipendunak hurrengo baldintzak betetzeko konpromisoa hartu behar duela:

A) KONPROMISO OROKORRAK

- Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailaren eta Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko Sailaren ingurumen politikak ezagutzea
- Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailaren eta Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren instalazioetan zerbitzuak betetzerakoan energia eta baliabide naturalen zentzuzko erabilpena egiteko konpromisoa.
- Lantokiari garbi eta txukun eustea, eta, gutxienez, aurkitu bezala uztea.
- Sortutako hondakinak bereiztea eta bere ardurapean dituzten hondakinak egoki kudeatzea.
- Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailean eta Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailean bete beharreko ingurumen baldintzen berri langileei emateko konpromisoa.
- Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Departamentuko eta Berrikuntza eta Ekonomi Sustapenaren Saileko ingurumen arduradunek ingurumena errespetatzeko eskaintako jokabide argibideak betetzea.




B) KONPROMISO BEREZIAK

- Garbiketa produktuen fitxak ematea.
- Papera eta kartoia horretarako apropos jarritako lekuetan uztea.
- Ontziak eta plastikoak hori koloreko edukiontzietan uztea.
- Hondakin organikoak hiriko edukiontzi berdeetan uztea.
- Garajeko olio isurketak garbitzea eta hondakinak horretarako prestatutako lekuan uztea.
- Argiak itzaltzea.



4. Ingurumen ziurtagiriak

Garbiketa zerbitzuaren arloan erabiltzen diren produktu batzuentzat ingurumen agiri ofizial (I mota) ugari existitzen dira. Hurrengo taulak agiri nagusiak eta zer produkturi zuzenduta dauden azaltzen du:

ETIKETA	EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA	AINGERU URDINA (Alemania)	BELTXARGA ZURIA (Ipar Europako herrialdeak)
LOGO OFIZIALA			
GARBITASUNERAKO PRODUKTUAK	●		●
KOMUNeko PAPERAK	●	●	●
ESKUAK LEHORTZEKO PAPERAK	●	●	●
ESKU XABOIA			●
ZAKAR POLTSAK		●	

Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak erostean edo garbiketa enpresei eskatzerako orduan, ikur hauek frogatu gisa erabili ahal izango dira.

Erabilpen industrialeko makinei dagokienez, gaur arte ez dago agiri edo etiketa energetiko baliagarriarik. Hortaz, eskaintzen diren bi produktu edo gehiagoren arteko konparazioaren bitartez hautatu beharko dira produktuak.

Azkenik, zerbitzuaren ingurumen garapenarekin lotuta, enpresak ingurumena kudeatzeko sistema (IKS) nagusietako bateko agiria izan dezake (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan...). Agiriak ingurumen jardunbide egokiak egiaztatzeke erabili daitezke, baldin eta jardunbideak kaudimen teknikoaren edo profesionalen baldintza gisa azaltzen badira. Horretarako, ordea ingurumena kudeatzeko sistemaren alorra garbiketa zerbitzua izan beharko da. Ingurumena kudeatzeko sistema ez da berez baloratuko, baina ingurumen irizpideak betetzen direla egiaztatzeke erabiliko da, ordea, baldin eta aurkeztutako ingurumen kudeaketako tresnen eta baloratu beharreko irizpideen artean lotura argia badago. Gainera, ingurumena kudeatzeko sistemak dituztenek erabiltzeko aukera izango dute, baldin eta pleguan eskatzen diren kontrol eta informazio mekanismoak badituzte.

5. Merkatuaren egoera: aukeran dagoen eskaintza

Garbiketa zerbitzuaren arloan, merkatuaren egoera bitan bana daiteke: enpresak eta erabiltzen diren produktuak.

Garbiketa produktuen arloan, ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak egiten dituzten enpresak daude Espainian (bai eta EAEn ere). Horrez gain, atzerriko marka pare batek ere banatzen ditu mota honetako produktuak estatuan. Gainera, aipatu dugun bezala, litekeena produktu horien unitate bakoitza garestiagoa izatea normalean erabiltzen direnak baino. Hala eta guztiz ere, produktu horien kostuak txikiak dira zerbitzuaren aurrekontu osoarekin alderatuta; horregatik, kostu osoan ez du apenas eraginik izango.

Komuneko paperari eta zabor poltsei dagokienez, egoera antzekoa da, merkatuan prezio lehiakorrak eta ingurumen irizpideak dituzten produktu ugari dagoelako. Hortaz, produktu horiek lortzeko edo horien balorazioa egiteko arazorik ez dago EAEn.

Europako Etiketa Ekologikoaren web orrian, (<http://www.eco-label.com/>) etiketa hori daukaten produktuak eta hornitzaileak aurki daitezke. Era berean, Espainiako Estatuan etiketa hori zer produktuk eta hornitzailek duten ere biltzen du web orriak. Beste ekoetiketa batzuk dauzkaten produktuak ere dagozkien webguneetan aurki daitezke.

Garbiketa enpresen arloan, lan arriskuen inguruko araudiagatik eta askotan ingurumenarekin sortzen den loturagatik, enpresa askok izaten dituzte ingurumen neurriak zerbitzua betetze-rakoan; batzuek ingurumena kudeatzeko sistemen agiriak ere izaten dituzte. Ihoberen web orrian (<http://www.ihobe.net/>) ingurumena kudeatzeko sistemaren bat (EMAS, ISO 14001 edo Ekoscan) duten EAEko enpresen zerrenda aurki daiteke.

Ondoren aipatuko ditugun irizpideak sektore honetako enpresek ebaluatuta daude. Ebaluazioa IHOBEn antolatutako elkarriketa foroan egin zuten, eta, parte hartu zuten enpresen ustean, irizpide horiek erraz bete daitezke (enpresa batzuek dagoeneko badituzte).



6. Ingurumen irizpideak

6.1. Prozedura ireki bidez kontratatzeko irizpideak

Kontratazio mota honetarako proposatzen diren irizpideak gehitzen den CDan aurki daitezke. Kapitulu honetan hiru eskakizun maila proposatzen dira: oinarrizkoa, aurreratua eta bikainta-sunezkoa.

Erabili behar duen administrazioaren egoerari gehien egokitzen zaion eskakizun maila aukeratu ondoren, maila bakoitzean, ingurumen irizpide egokiez gain —zehaztapen teknikoak—, eskaintza teknikoa esleitzeko irizpideen proposamena eta haren edukia ere aurkituko dira. Lizitzaileek informazioa aurkezteko moduari buruzko azken atal hori baliagarria da eskatutako informazioa errazago biltzeko.

Kapitulu hori hornitzaileentzako *checklistak* osatzen du; hori ere gehitutako CDan dago, eta baldintza teknikoan orriari erantsiko zaio.

6.2. Prozedura negoziaturako irizpideak

Garbiketa kontratuen bolumen ekonomikoa dela-eta, zuzeneko kontratazio bidez kontratatzea testigantzazkoa baino ez da.

Kontratazioa prozedura negoziatuaren bitartez egiten bada, gomendagarria da, lehenik eta behin, ingurumena kudeatzeko sistema daukaten enpresak gonbidatzea.

Dagoen aukeragatik posible izango ez balitz, enpresa posibleekin harremanetan jarri beharko da, kontratuak irauten duen aldian enpresek ingurumena kudeatzeko sistemaren bat lortzeko aukera ebaluatzeko.

Gainontzeko irizpideei dagokienez, prozedura irekinako definitutakoak erabiltzea aholkatzen da.

6.3. Kontratazio zuzenerako irizpideak

Garbiketa lanak langile propioek egiten badituzte eta garbiketa zein higiene produktuak, poltsak eta makinak zuzenean soilik eskuratzen badira, erabili beharreko irizpideak hurrengoak dira:

HIGIENE PRODUKTUAK

Ekoetiketa ekologikoa duten produktuak edo ekodiseinatutakoak.

ZAKAR POLTSAK

Plastiko halogenaturik eta plastiko birziklaturik ez duten poltsak, hobe ekoetiketa baldin badute.

PAPEREZKO PRODUKTUAK

Hobe % 100 birziklatutako papera, TCF papera edo ekoetiketa duen papera aukeratzea.

MAKINAK

Potentzia berarekin ur eta energia kontsumo txikiagoa duten makinak, eta zarata gutxiago sortzen dutenak. Horretarako, fabrikatzaile baten baino gehiagoren eskaintzak begiratu beharko dira.